

## **EUSKARAK, KATALANAK ETA GAZTELANIAK ATZIZKI ETA AURRIZKIEN BIDEZ GAUZATZEN DITUZTEN ERATORPEN- BIDEEN ARTEKO ERKAKETA: ONDORIO LEXIKOGRAFIKOAK**

*Miren AZKARATE. EHU*

*Olga FULLANA. Gironako Unib.*

*Lluïsa GRÀCIA. Gironako Unib.*

*Juan Karlos ODRIOZOLA. EHU*

Laburpen honek, azken hiru urteotako ikerlan baten ondorioak bildu nahi ditu. *Configuración morfológica y estructura argumental; léxico y diccionario* izeneko lan hau, Madrilgo Hezkuntza Ministeritzak diruz babesturiko proiektu baten barruan egin da. Bestalde, Madrilgo Unibertsitate Autonomoak, Gironako Unibertsitateak eta Pompeu i Fabra Unibertsitateak osaturiko hogeitabi ikertzaileko talde batean aritu garelarik, hiru ikuspuntu desberdinetatik eutsi diogu lanari: Lehenik, euskara, gaztelania eta katalanaren atzizki eta aurrizkien bidezko eratorbideak aztertuta, egiaztatu egin da oso desberdintasun nabaria dagoela euskal aurrizki eta atzizkien artean eta oro har euskal eratorpenaren eta eratorpen erromanikoaren artean. Bigarrenik, bi desberdintasun horietarako azalpen teoriko bat gauzatu dugu, jadanik bibliografian zirriboraturik zegoena zabalduz. Hirugarrenik, azalpen teoriko horrek lexikogintzan eman dezakeen laguntza finkatzen saiatu gara.

### **1.- Deskribapena**

Deskriptibotzat jo daitekeen lehenengo ikuspegiaren barruan, hiru hizkuntza hauen eratorpen-bide jakin batzuk aztertu dira: Lehenik, eratorpen-oinarri modura aditza duten atzizkien bideak (*herdoildu* ==> *herdoiltzaile*); bigarrenik, oinarri modura aditza duten aurrizkien bideak (*orekatu* ==> *desorekatu*); azkenik, ondorio modura aditz eratorriak ematen dituzten atzizkien bideak (*arnasa* ==> *arnastu*).

### **11.- Aditza + atzizkia ==> izenondoa: balio aktibo, pasibo eta modalen arteko gurutzamendua**

Horrelako prozesua sortarazten duten atzizkien artean, *-gari*, *-kor*, *-tzaile* eta *-kizun* aztertu ditugu lan honetan, eta beraiekin batera, *-gaitz* delakoa ere kontutan hartu dugu, pareko funtzionamendua daukan kasuetan. Bestalde, *-ante*, *-ble*, *-dero* eta *-dor* atzizki erromanikoak ere izan ditugu ikusmiran. Atzizki hauetan guztietan, oso interesgarri gerta daitekeen gurutzamendu bat nabari da eratorri-mota desberdinen adieren bidez ezaugarriaren artean. Alde batetik, sortzen diren eratorrien adiera-motak aztertuko ditugu: jasale bat daukan ekintza baten sortarazlea (*areagotzaile* denak areagotu egiten du), jasalerik gabeko ekintza baten nolabaiteko subjektua (*egonkor* dena egon egiten da) eta ekintza baten jasalea (*zaticizun* dena zatikatua gertatzen da); beste alde batetik ekintza horrek eraman ditzakeen modaltasun-motak ere (*ikusgarri* = ahala, *betekizun* = beharra, *apurkor* = joera...)

baditugu aztergai, baina batez ere jasale adierazten duten eratorriei loturik azalduko zaizkigu.

a) *Balio aktiboak: gehienetan modaltasunik gabe*

-*Garri* atzizkiak *elikatu* bezalako aditz-oinarrietan adiera aktiboa ematen du, hau da, *elikagarri* denak, elikatu egiten du ekintzaren jasale bat. Zenbaitetan, balio aktibo hau ahalezko modaltasunarekin batera ager daiteke: *erregarri* denak, erretzearen ekintza sortaraz dezake baina erretzen ez duenean ere, erretzeko ahalmena dauka eta erregarria da. -*Dor* atzizki erromanikoak ere, honelako adiera eduki dezake (*destructor* ).

-*Kor* atzizkiak ere, ekintza baten sortarazlea adieraz dezake, baina kasu honetan, ekintzaren jasalea ez da ezaguna edo zehaztua: *emankor* denak, zehaztugabea den zeozer kopuru handietan emateko joera dauka; joera delako horretan, gainontzeko balio aktiboetan ez bezala, modaltasun-mota bat dagoela onar liteke. Horretaz gain, beste mota bateko adiera azal daiteke, jasalerik gabeko ekintza baten nolabaiteko subjektua alegia: *iraunkor* denak iraun egiten du, jasale baten gaineko eraginik sortarazi gabe. -*Dero* erromanikoak ere mota honetako adiera eduki dezake nolabaiteko modaltasunarekin batera (*duradero* ).

-*T(z)aile / -le* atzizkiek, jasale ezaguneko edo ezezaguneko ekintzen sortarazleak adieraz ditzakete, baina era berean, jasalerik ez duen ekintza baten nolabaiteko subjektua eman dezake aditzera: *ionizatzaile* denak ionitzazen duena, ezaguna da nonbait; *erretzaile* denak, agian, oso ezaguna ez den zeozer erretzen du; *operatzaile* denaren ekintzak, azkenik, ez du inolako jasalerik. -*T(z)aile / -le* atzizkiek ez daramate inoiz modaltasunik.

Laburbil daitekeenez bada, -*garri* eta -*tzaile* atzizkiek jasale ezaguneko ekintzen sortarazleak adierazten dituzte, baina lehenengoak oro har gizakiari ez dagozkionak adieraziz (*hilgarri* ) eta bigarrenak batez ere gizakiarenak iradokiz (*hiltzaile*); hala ere, azken honi begira salbuespen ugari aurki daiteke (*oxidatzaile*, *indargetzaile* ). Hauen ondoan, -*kor* atzizkiak oso ezagunak ez diren jasaleak dituzten ekintzen sortarazleak adierazten ditu. -*Ante* erromanikoak , ez dauka modaltasunik eta jasadun ekintza baten sortarazlea adieraz dezake inoiz (*contratante*) baina batez ere, jasalerik gabeko ekintza baten nolabaiteko subjektua adierazten du (*colgante*).

-*Gaitz* delakoak, jasalerik gabeko ekintza baten nolabaiteko subjektua ematen du aditzera: *iragangaintz* dena, besterik gabe, nekez iragaten da. Adiera hauek, ahalezko modaltasuna daramate.

-*Kizun* atzizkiak ere, jasalerik gabeko ekintza baten nolabaiteko subjektua adieraz dezake, nola edo halako aspektualtasun/modaltasunarekin batera: *etorkizuna* etortzeko dagoena da.

b) *Balio pasiboak: ahala, beharra eta joera direlako modaltasunik*

-*Garri* atzizkiak, *garraiatu* bezalako aditzekin batera, nola edo halako modaltasuna duten adiera pasiboak eskaintzen ditu: *garraigarri* denak, garraiatzearen ekintza paira dezake. Bestelako modaltasun bateko balio pasiboa ere badu: *miretsi* bezalako aditzekin batera, *miresgarri* denak, mirestearen ekintza hori pairatzea merezi du. -*Dor* atzizkiak, katalanaren historian, baditu bi balio hauek (*obtenidora* 'eskuragarri' eta *lloadora* 'laudagarri'), baina gaur egun, gaztelaniaz bezala, modaltasunik gabeko balio aktiboa baizik ez dago bizirik (*destructor*). -*Ble* atzizkiak, -*garri* atzizkiak dituen bi adiera pasiboak daramatza (*obtenible* eta *loable*).

-*Kizun* atzizkiak adiera pasiboa darama, baina haren modaltasuna ez da oso egonkorra eratorrietan zehar: *berrekizun* denak, oro har berretzearen ekintza jasaten du modaltasun ageririk gabe, baina *eginkizun* denak, bere aldetik, beharrari loturiko modaltasuna edo agian aspektu-ezaugarri bat daramala onar daiteke.

-*Gaitz* delakoak bere aldetik, ahalezko modaltasuneko adiera pasiboa dauka gehienetan: *oxidagaitz* denak oxidatzearen ekintza nekez jasan dezake.

-*Kor* atzizkiak joerazko edo ahalezko modaltasuna daukaten pasiboak era ditzake: *apurkor* denak apurtzearen ekintza jasateko joera dauka eta *ikuskor* denak, ikustearen ekintza jasan dezake.

## 12.- Aurrizkia + aditza ==> aditza: euskaraz, aditzaren modifikatzaile

Ezaguna da aurrizkien bidez eratorririko aditzen artean alde nabarmenak daudela euskararen eta hizkuntza erromanikoen eratorpen-bideen artean: hizkuntza erromanikoez atzizki ugari badituzte ere (gutxienez *a-*, *auto-*, *ben-*, *bien-*, *con-*, *des-*, *en-*, *es-*, *extra-*, *mal-*, *per-*, *pre-*, *re-*, *re-*, *sobre-*, *sub-*, *trans-* eta *tras-*), euskararen esparrua erabat txiroa da: *ber-* /*bir-* eta *des-* (lan honetan aztertu ez ditugun *gain* edo *azpi* bezalakoetan oinarriturik egindako saioetan lortu izan dena gaineratu beharko balitz ere).

a) Gaztelania eta katalanaren aurrizkiek bi eratara joko dezakete aditz eratorri bat eratzeko unean.

Lehenengo kasu batean, *predir* /*predecir*, *desorganani(t)zar* edo *redistribuir* bezalako eratorriak gauzatzeko erabili izan den aditz-oinarriari dagokio adieraren funtsa: *predir* eratorriaren adiera azken finean, 'esan' da, horren modifikazio bat adierazteko 'aurresan' egin bada ere; *desorganani(t)zar* edo *redistribuir* bezalakoetan ere, 'antolatatu' eta 'egin' ditugu funtsean. Bigarren kasu batean, *desfullar* /*deshojar* edo *engabiar* /*enjaular* bezalakoetan (eta bai lan honetan aztertu ez ditugun *prehistoria* bezalakoetan ere), *fulla* /*hoja* eta *gabia* /*jaula* (eta *historia*) ez dira eratorrien funtsa, zeren eta eratorri horien esangura ez baita zehazki 'hosto' edo 'gaztelu' (ez 'historia' ere), eta bai zehazkiago 'hostoak galdu' edo 'zeozer kaiolan sartu' (edo 'historiaren aurrekoa').

b) Euskarak oso ezberdin jokatzen du *des-* eta *ber-* /*bir-* horien bidez aditz eratorriak lortzerakoan. Lehenik, hizkuntza erromanikoetan aurreko era bietara jokatzen duen *des-* atzizki maillegatuak, *desantolatu* delakoaren kasuan, *desorganani(t)zar* horretaz esan dugun gauza bera esan daiteke, eta aditz eratorriaren funtsa, eratorria gauzatzeko erabili izan dugun aditz-oinarriaren modifikazio bat dugu, *desantolatu*. Aurrizki honek hizkuntza erromanikoetan azaltzen duen bigarren eredua, hau da, *desfullar* /*deshojar* horien pareko euskal eredua aurkitu nahi dugunean ordea, *des-* aurrizkian oinarrituriko eratorpen-saioak oso bazterrekoak direla antzeman daiteke berehala (\**desostatu*). Bigarrenik, *ber-* /*bir-* aurrizkiak ere, horrelaxe jokatzen du, beti ere eratorpen-oinarriaren modifikatzaile modura agertuz: *berreskuratu* = *berriz eskuratu*. Hirugarrenik, euskal izenen artean oso azpikategorizazio berezia duten *gain* edo *aurre* bezalakoak, eratorpenaren mugetan edo elkarketaren esparruan sartuta daudelarik, ez dira ikerlan honen aztergai izan, baina edonola, azpimarratzekoa da beste kide baten ezkerrean zein eskubialdean ager daitezkeela; lehenengo kasuan modifikatzaileak dira (*gainzamatu* = *gehiegi zamatu*, *auresan* = *aurretik esan*), eta bigarrenean (izen eratorriak emateko unean) haiek dira adieraren funtsa (*esnegaina* ez da esnea, esnearen *gaine*koa baizik, *historiaurrea* ez da historia, historiaren *aurre*koa baizik).

## 13.- Izena/izenondoa... + atzizkia ==> aditza: euskaraz, hamaika bide

Bi hizkuntza erromanikoez, aurrizki-multzo oparoaren ondoan, badituzte era berean nahiko emankorra den atzizki-multzo bat: *-a(r)*, *-ear*, *-ece(r)*, *-ejar*, *-itar*, *-i(t)zar*, *-ificar* eta *-ir*.

Euskarak bere aldetik, atzizki bakarra dauka aditz berriak eratzeko: *-tu*. Lan honetan ordea, agerian utzi dugu azalezko txirotasun horren azpian, gure atzizki honek gutxienez hamaika (11) bide desberdin dituela, hau da, hizkuntza erromanikoen atzizkiak baino emankorragoa dela:

Izena => *haragitu, kartoindu*  
(adiera: izena + bihurtu; 'encar<sup>n</sup>ar, acartonarse')

Izena => *beldurtu, amorratu*  
(adiera: izena +sortarazi/hartu; 'aterrorizar, enrabiar')

Izena => *zatitu, adartu*  
(adiera: izena (pluralean) +egin; 'despedazar, ramificar')

Izena => *larrutu, lumatu*  
(adiera: izena +kendu; 'despellejar, desplumar')

Izena => *kaiolatu, baztertu*  
(adiera: izena + -ra + eraman/joan; 'enjaular, marginar')

Izena => *arnastu, baimendu*  
(adiera: izena +hartu/eman/egin/izan; 'respirar, permitir' ez dira eratorriak)

Izenondoa => *indargetu, handiagotu*  
(adiera: izenondoa + bihurtu/jarri; 'debilitar, agrandar')

Izena + -ka => *sailkatu, parekatu*  
(adiera: izena + -tan + antolatu; 'clasificar, emparejar')

Izena + -ka => *mailukatu, mokokatu*  
(adiera: izena + -z+ behin eta berriz eragin; 'martillar, picotear')

Izena + -ra => *lurreratu, oheratu*  
(adiera: izena + -ra + joan/eraman; 'aterrizar, encamarse')

Izena + -z => *ureztatu, koipeztatu*  
(adiera: izena + -z + estali/hornitu; 'aguar, engrasar')

## 2. Azalpen teorikoa

### 21.- Balio aktibo, pasibo eta modalen arteko gurutzamendua: eratorpenaren aditz-oinarriaren arabera

Plazaratua da jadanik hizkuntzetan zehar errepikatu egiten den gurutzamendu honen azalpen bat: *beldurtu* bezalako oinarri-aditz aktiboen kasuan, *-garr*i atzizkiak adibidez, aditzaren sortarazle delako argumentu hori zurgatu egiten duela esan ohi da, eta esana dugunaren arabera, euskaldunak badaki beldurgarria denak beldurra eduki barik beldurra sortarazten duela. *Ulertu* edo *miretsi* bezalako aditzak ordea, ez dira aktiboak edo ez dira *beldurtu* bezain aktiboak eta, *-garr*i atzizkiak adibidez, egile/sortarazle delako hori zurgatu beharrean jasalea zurgatzen duela esan ohi da; izan ere, *jarrera ulergarri* edo *indar miresgarri* direnek, esana dugunez, aditzaren ekintza jasateko erraztasuna daukate edo ekintza hori jasatea merezi dute. *-Garr*i honi dagokionez diogunak, jakina, bestelako atzizki eta aditz guztietarako balio du, zehaztasunak zehaztasun. Hona hemen aurrean egin izan dugun deskribapen guztiaren beste zenbait adibide, azalpen teoriko beraren pean azalduak: *beldurtu* edo *ulertu* aditzekin batera ikasten ditugun argumentu-egituretan, esate baterako, ezin dira sartu egile garbia behar duten *-(z)aile /-le* atzizkiak (\**beldurtzaile*,

\**ulertzaille* ), baina *miretsi* horretan ordea, badago egile bat eta egile argumentu hori zurgatzen delarik, *miresle* zilegi da; *eman* bezalako aditz batean bestalde, osagarri zuzenaren argumentua ezezaguna edo zehaztugabea izan daiteke, eta beraz, *-kor* atzizkiak *emankor* bezalako zeozer eraiki dezake, egile edo sortarazlearen argumentua zurgatuz; berdin jokatzen dute *-tzaile /-le* atzizkiek, baina egilea zurgatuz *emaile* ematerakoan, osagarri zuzena zehaztua da.

## 22.- Aurrizki- eta atzizki-kopuruen arteko desberdintasun nabaria: euskaraz gunea bukaeran

Jadanik bibliografian zirriborraturik dagoena zabalduz, gure hipotesian euskararen eta hizkuntza erromanikoen ezaugarri sintaktiko bat morfologiaraino estrapolatuko dugu, ondokoa onartzeko: eratorpenean ere euskarak egituraren burua edo gunea eskuinaldean jartzen du, eta hizkuntza erromanikoez ezkerrean. Hau dela eta, zenbait aurrizki erromanikok, era bietara joka dezakete, beti ezkerrean agerturik ere: eratorpen-oinarriaren modifikatzaile modura (*desfer* / *deshacer*), edo buru modura eratorpen-oinarria osagarri gisan hartuta (*deshojar*). Euskarak bere aldetik, lehenengo eredu baina ez dauka eskuragarri: euskal aurrizkiek bakar-bakarrik eratorpen-oinarriaren modifikatzaile modura joka dezakete (*desequin*), eta ez daukate ezkerreko gunea hartuz buru modura jokatzerik (\**desostatu*); hori onarturik, erraz ondoriozta daiteke aurrizkiek buru modura jokatzerik etor litezkeen aukera guztiak euskaraz ez direla zilegi.

Euskal atzizkiek aldiz, buru modura joka dezakete eskuinaldean kokatuz eta beraz, hizkuntza erromanikoetan bezala, euskaraz ere ugari dira.

## 3.- Ondorio lexikografikoak

Lan honetatik atera daitezkeen ondorio zabalak zirriborro bat egiteko, hona hemen zenbait kontu:

a) Bestelako hizkuntzen terminoen euskal ordainak asmatu behar direnean, deskribapenaren eta azalpen teorikoaren hainbat zehaztasun hartu beharko dira kontutan.

Hasteko, izenondoak sortzen dituzten atzizkien balio aktibo, pasibo eta modalen arteko gurutzamenduak xehetasunez aztertu behar dira, bai hizkuntza emailean bai (euskara den) hizkuntza hartzailean ere. Edonola, euskal ordainak gauzatzeko hurrengo eredu errazari eutsi beharko zaio:

hereda<sub>1</sub>ble<sub>2</sub> => hereda<sub>1</sub>garri<sub>2</sub>

reduc<sub>1</sub>tor<sub>2</sub> => erreduzi<sub>1</sub>tzaile<sub>2</sub>

Bigarrenik, gogoan izan beharko dugu beti aurrizki eta atzizki hauen guztion jokaera. Alde batetik, ezkerrean kokaturik buru modura jokatzen duten aurrizkiek, eskuinaldean buru izan daitezkeen zeozertan izango dute euskal ordaina. Beraz, erabat estandarra den eratorri batean oinarriturik, horrelako arau orokorra gauza daiteke:

des<sub>1</sub>fulla<sub>2r</sub> / des<sub>1</sub>hoja<sub>2r</sub> => hostoak<sub>2</sub> galdu<sub>1</sub> edo hosto<sub>2</sub> gabe<sub>1</sub>tu

Ezkerrean kokaturik modifikatzaile modura jokatzen duten batzuek, badute euskaraz bere aurrizki-ordaina:

des<sub>1</sub>fer<sub>2</sub> /des<sub>1</sub>hacer<sub>2</sub> ==> des<sub>1</sub>egin<sub>2</sub>

re<sub>1</sub>fer<sub>2</sub> /re<sub>1</sub>hacer<sub>2</sub> ==> berr<sub>1</sub>egin<sub>2</sub> .

Areago, *-tu* atzizkiak hizkuntza erromanikoen aurrizki-multzo zabalaren zati handi bat estaltzeko ahalmena dauka, honelako eredu orokorraren pean:

en<sub>1</sub>gabia<sub>2</sub> r / en<sub>1</sub>jaula<sub>2</sub> r => kaiola<sub>2</sub>ra<sub>1</sub>tu

b) Informazio morfologiko ageria leramakeen euskal hiztegi bat egiteko garaian, eratorri bat ematerakoan gauzak era jakin batera antolatu beharko lirateke aurrizki eta atzizkien berri ere emateko:

Erorriaren gramatika-kategoria emanez, jakina, atzizki edo aurrizkiaren funtsezko jokaeraren berri ere eskainiko da zeharka.

Erorriari begira lan honetan zehar gauzatu ditugun esangura-definizioak erabiliz, ondo bil daitezke batetik aurrizki eta atzizkien eduki semantikoak eta bestetik esparru teorikoan zurgatutzat jotzen den erorriaren argumentu delako hori ere.

## BIBLIOGRAFIA

- AZKARATE, M. & GRACIA, L. (1995) 'Agentivity and Modality in Deverbal Adjectives in Basque and in Catalan' (eskuizkribua)
- AZKUE, R. M. (1925) *Morfología Vasca* La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbo 1969
- GRACIA, L. eta beste (1997) *Comparación interlingüística: lenguas románicas-vasco* (eskuizkribua)
- LAFITTE, P. (1944) *Grammaire Basque* Elkar. Donostia 1979
- VILLASANTE, L. (1976) *Palabras vascas compuestas y derivadas* Editorial Franciscana de Aranzazu. Oñati

\*\*\*\*\*

## LABURPENA / RESUMEN / RÉSUMÉ / ABSTRACT

### **Euskarak, katalanak eta gaztelaniak atzizki eta aurrizkien bidez gauzatzen dituzten eratorpen-bideen arteko erkaketa: ondorio lexikografikoak**

Hitzaldi honek azken hiru urteotan lau unibertsitate hauen taldeek egindako ikerkuntzaren ondorioetako batzuk azaltzeko helburua izango luke. Lan hori, Madrilgo Hezkuntza Ministeritzak diruz babesturiko *Configuración morfológica y estructura argumental: léxico y diccionario* izeneko proiektuaren barruan egin da, ikuspuntu hirukoitz baten barruan. Lehenik, atzizki eta aurrizkien bidezko eratorpen-prozesuak aztertu dira hiru hizkuntzetan, bereziki eratorpen-oinarri modura aditza dutenak edo eratorri modura aditza ematen dutenak arakatuz; ondorioz, bi desberdintasun nagusi aurkitu dira: euskararen barruan atzizki eta aurrizkien bidezko eratorpenen arteko, eta euskal eratorrien eta eratorri erromanikoen artekoa. Bigarrenik, bi desberdintasun horietarako azalpen teoriko bat bilatu eta aurkitu da. Hirugarrenik, azalpen teoriko horrek lexikogintzan eman dezakeen laguntza finkatzen saiatu gara. Komunikazio honek, azalpen teorikoa eta ondorio lexikografikoak laburbilduko lituzke batez ere.

Edozein azalpen teorikok argitu behar dituen bi desberdintasunak, zehazkiago, hauexek dira: a) euskarak atzizki ugari baditu ere, oso aurrizki gutxi dauka, eta b) desoreka hori ez dago inola ere hizkuntza erromanikoetan. Gure hipotesiak, euskararen eta hizkuntza erromanikoen ezaugarri sintaktiko bat morfologiaraino estrapolatuko du: eratorpenean ere euskarak egituraren burua edo gunean eskuinaldean jartzen du, eta hizkuntza erromanikoez ezkerrean. Hau hobeto azaltzeko, kontutan hartu behar da hizkuntza erromanikoen aurrizkiek bi erataria jokatzen dutela: buru baten modifikatzaile modura jokatzen dutenak, buru horren ezkerrean ager daitezke (*refer / rehacer, desfer / deshacer, predir / predecir*), eta buru modura jokatzen dutenak ere, lehenengo gunean kokatzen dira, osagarria eskuinaldean hartzen baitute (*eslomar-se / desplomarse, desfullar / deshojar*). Lehenengo kasuan, aurrizkiak buruaren zehaztasun bat adierazten du (*predecir* eratorria, *decir* oinarri-buruaren zehaztasun bat da: aurretik esan, baina esan, azken finean); bigarren kasuan, aurrizkia bera da burua, osagarria eratorpen-oinarria delarik; izan ere, *Prehistoria* ez da *historia* oinarri-osagarriaren zehaztasun bat, oinarria (*historia*) ez den bestelako gauza bat baizik). Euskarak bere aldetik, lehenengo eredu baina ez dauka eskuragarri, bi ikuspegitatik egiazta daitekeenaren arabera: Lehenik, erromantikoetan aurreko era bietara jokatzen duen *des-* atzizki mailegatuak, *desegin* eratorrian, *egin* oinarri-buruaren modifikatzaile modura jokatzen du aurrean kokatuz (*egitearen alderantzizkoa*), baina aurrizki-osagarria/oinarri-burua eredu aurkitu nahi dugunean (*deshojar*), *desostatu* gaizki eginda dagoela beha daiteke nonbait; *ber-/bir-* 're-' eta *ez-* 'in-/des-' aurrizkiek ere, horrelaxe jokatzen dute.

Ondorio lexicografikoei begira, lehenik *desostatu* bezalakoak egiteko eragozpenak azpimarratuko genituzke hitzaldi honetan. Bigarrenik, agerian utziko genuke hizkuntza erromanikoen (eta ingelesez) aurrizki-burua/oinarri-osagarriaren euskal ordaina oinarri-osagarria/atzizki-burua dela zuzen-zuzenean. Honek laguntza paregabea emango du gaurko lexicogintzan: *des<sub>1</sub> hoja<sub>2</sub> r Øhosto<sub>2</sub> gabe<sub>1</sub> tu* bezalako saioetatik harantzago, kontutan hartu beharko dugu *hostoak<sub>2</sub> galdu/kendu<sub>1</sub>* bezalako aukera, baina bereziki, *pozoin-du* 'en-venenar', *bigun-du* 're-blandecerse', *lerro-ka-tu* 'a-linear', *irin-ez-ta-tu* 'en-harinar', *lur-rera-tu* 'a-terrizar' direlako "jauziak" estandartzat hartu beharko dira, *a-*, *des-*, *en-*, *es-*, *in-* edo *re-* bezalako aurrizkien ordainak aurkitzerakoan bide emankorrak eriden nahi baditugu.

### **Contraste de los medios de derivación, a partir de prefijos y sufijos, propios del euskera, catalán y castellano: conclusiones lexicográficas**

La finalidad de esta ponencia se centra en la exposición de algunos de los resultados de la investigación llevada a cabo por los grupos de trabajo de estas universidades en los últimos tres años. El estudio está encuadrado en el proyecto denominado *Configuración morfológica y estructura argumental: léxico y diccionario*, subvencionado por el Ministerio de Educación de Madrid y enfocado desde tres puntos de vista. En primer lugar, los procesos de derivación basados en prefijos y sufijos han sido analizados en los tres idiomas, con especial énfasis en los que se parte de un verbo como base de derivación o en aquellos otros en los que el derivado está constituido por el verbo mismo. En consecuencia, se han detectado dos diferencias sustanciales: entre derivaciones a partir de prefijos y sufijos en el seno del euskera, y entre los derivados vascos y los de origen románico. En segundo lugar, se ha buscado y hallado una exposición teórica de esas dos diferencias. En tercer lugar, hemos tratado de consolidar la contribución que puede brindar tal exposición teórica en el campo de la lexicografía. La presente comunicación pretende compendiar la exposición teórica y las conclusiones lexicográficas.

Las diferencias que deben ser tratadas en cualquier exposición teórica son sucintamente las siguientes: a) la escasez de prefijos en euskera frente a la abundancia de sufijos, y b) la constatación de que en las lenguas románicas no se da tal descompensación. Nuestra hipótesis es que una característica sintáctica del euskera y de las lenguas románicas se extrapola hasta la morfología, de manera que en euskera, también en derivación, el núcleo de la estructura se ubica a la derecha, mientras que en las lenguas románicas va a la

izquierda. Para una mejor comprensión, hay que tener presente que los prefijos de las lenguas románicas pueden actuar de dos formas: unos como modificadores de un núcleo, y van a su izquierda (*refer/rehacer*, *desfer/deshacer*, *predecir/predecir*), y otros que actúan como núcleo, ya que se colocan en el primer lugar y el complemento va a su derecha (*eslomar-se/desplomarse*, *desfullar/deshojar*). En el primer caso, el prefijo aporta una especificación del núcleo (el derivado *predecir* es una concreción del núcleo *decir*: decir con antelación, pero decir al fin y al cabo); en el segundo caso, mientras el núcleo está compuesto por el mismo prefijo, el complemento es la base de derivación; de tal modo que *prehistoria* no es una concreción del complemento base *historia*, sino algo diferente a la base (historia). El euskera, por su parte, sólo dispone de la primera forma, tal y como se puede comprobar desde dos ángulos de vista. En primer lugar, dispone del prefijo prestado *des-*, que dispone de las dos posibilidades que también tiene en las lenguas románicas, en el derivado *desegin*, actúa como modificador del núcleo-base *egin* (antónimo de *hacer*), pero cuando queremos buscar un ejemplo del modelo complemento del prefijo/núcleo de la base (*deshojar*) *desostatu* nos encontramos que no está bien formado. Nótese que los prefijos *ber-/bir-* ‘re’ y *ez-* ‘in-/des-’ también actúan de la misma forma.

En cuanto a las conclusiones lexicográficas, debemos subrayar en primer lugar en esta ponencia las dificultades para formar palabras como *desostatu*. En segundo término, dejaríamos bien patente que el prefijo-núcleo/base-complemento de las lenguas románicas y del inglés tiene su correspondiente en euskera en base-complemento/sufijo-núcleo; lo que supone una aportación importante a la lexicografía actual, más allá de las formaciones del tipo: *des<sub>1</sub> hoja<sub>2</sub> r ø hosto<sub>2</sub> gabe<sub>1</sub> tu*, debemos tener presente la opción *hostoak<sub>2</sub> galdu/kendu<sub>1</sub>*, pero especialmente las formas *pozoin-du* ‘en-venenar’, *bigun-du* ‘re-blandecerse’, *lerro-ka-tu* ‘a-linear’, *irin-ez-ta-tu* ‘en-harinar’, *lur-rera-tu* ‘a-terrizar’, que deberían estandarizarse como los correspondientes comunes de los prefijos *a-*, *des-*, *en-*, *es-*, *in-* o *re-*, a fin de poder disponer de más y mejores recursos.

### **Contraste des moyens de dérivation à partir de préfixes et de suffixes propres à l'euskera, au catalan et à l'espagnol: conclusions lexicographiques**

Le but de cet exposé est centré sur l'exposition de certains des résultats de la recherche menée à bien par les groupes de travail de ces universités lors des trois dernières années. L'étude est située dans le projet dénommé *Configuración morfológica y estructura argumental: léxico y diccionario*, subventionné par le Ministère de l'Education de Madrid et envisagé à partir de trois points de vue. En premier lieu, les processus de dérivation basés sur les préfixes et les suffixes ont été analysés dans les trois langues, en prêtant un intérêt spécial sur ceux pour lesquels on part d'un verbe comme base de dérivation ou sur ceux où le dérivé est constitué par le propre verbe. En conséquence, deux différences substantielles ont été détectées: entre dérivations à partir de préfixes et de suffixes au sein de l'euskera, et entre les dérivés basques et ceux d'origine romane. En deuxième lieu, nous avons cherché et trouvé une exposition théorique de ces deux différences. En troisième lieu, nous avons essayé de consolider la contribution que peut offrir une telle exposition théorique dans le domaine de la lexicographie. L'exposé présent prétend résumer l'exposition théorique et les conclusions lexicographiques.

Les différences qui doivent être traitées dans toute exposition théorique sont succinctement les suivantes: a) le manque de préfixes en euskera face à l'abondance de suffixes et, b) la constatation que, dans les langues romanes, cette décompensation n'a pas lieu. Notre hypothèse est: qu'une caractéristique syntaxique de l'euskera et des langues romanes s'extrapole jusqu'à la morphologie, de telle façon qu'en euskera, en dérivation également, le noyau de la structure est situé à droite, tandis que dans les langues romanes il est à gauche. Pour une meilleure compréhension, il ne faut pas oublier que les préfixes des langues romanes peuvent agir de deux façons: une, en tant que modificateur d'un noyau, alors ils sont à sa gauche (*refer/ rehacer*, *desfer/ deshacer*, *predecir/ predecir*), et d'autres qui agissent en tant que noyau, puisqu'ils sont placés en premier lieu et le complément est situé



à leur droite (*eslomar-se/ desplomarse, desfullar/ deshojar*). Dans le premier cas, le préfixe donne une spécification du noyau (le dérivé *predecir* est une concrétion du noyau *decir*: dire à l'avance, mais dire en fin de compte); dans le deuxième cas, alors que le noyau est composé par le même préfixe, le complément est la base de dérivation; de telle sorte que *prehistoria* n'est pas une concrétion du complément base *historia*, mais quelque chose différente de la base (*historia*). L'euskera, de son côté, ne dispose que de la première façon, tel que l'on peut le vérifier à partir de deux angles de vue. En premier lieu, il dispose du préfixe emprunté *des-*, qui dispose des deux possibilités qu'il a aussi dans les langues romanes, dans le dérivé *desegin*, il agit comme un modificateur du noyau-base *egin* (antonyme de faire), mais lorsque nous voulons chercher un exemple du modèle complément du préfixe/noyau de la base (*deshojar*) *desostatu*, nous pouvons observer qu'il n'est pas bien formé. Il faut souligner que les préfixes *ber-/ bir-* "re" et *ez-* "in-/des-" agissent de la même manière.

Quant aux conclusions lexicographiques, nous devons souligner en premier lieu dans cet exposé, les difficultés pour former des mots comme *desostatu*. En deuxième lieu, nous laisserons bien clair que le préfixe-noyau/base-complément des langues romanes et de l'anglais a son équivalent en euskera dans la base-complément/ suffixe-noyau; ce qui suppose un apport important à la lexicographie actuelle, qui va plus loin que les formations du type; *des<sub>1</sub> hoja<sub>2</sub> r ∅ hosto<sub>2</sub> gabe<sub>1</sub> tu*, nous devons nous souvenir de l'option *hostoak<sub>2</sub> galdu/kendu<sub>1</sub>*, mais surtout des formes *pozoin-du "en-venenar"*, *bigun-du "re-blandecerse"*, *lerro-ka-tu "a-linear"*, *irin-ez-ta-tu "en-harinar"*, *lur-rera-tu "a-terrizar"*, qui devraient se standardiser comme les équivalents communs des préfixes *a-*, *des-*, *en-*, *es-*, *in-*, ou *re-*, afin de pouvoir disposer de plus et de meilleures ressources.

### **Comparison of methods of derivation from prefixes and suffixes in Basque, Catalan and Spanish: lexicographic conclusions**

The purpose of this paper is to set forth some of the results of research by working groups at the above universities over the last three years. This study is part of the project titled *Configuración morfológica y estructura argumental: léxico y diccionario*, subsidised by the Spanish Education Ministry and based on a three-viewpoint approach. Firstly, derivation processes based on prefixes and suffixes have been analysed in all three languages, with special emphasis on those cases in which the basis for derivation is a verb and those in which the derivative is a verb. Two substantial differences have been found: one is between prefixes and suffixes within Basque and the other is between Basque derivatives and those of romance origin. Secondly, a theoretical exposition of these two differences has been sought and found. Thirdly, we have attempted to consolidate the contribution of this theoretical exposition to the field of lexicography. This paper aims to bring together the theoretical exposition and our lexicographic conclusions.

The differences which must be dealt with in any theoretical exposition are: a) the scarcity of prefixes in Basque as compared to the abundance of suffixes; and b) the fact that this imbalance is not shared by the romance languages. Our hypothesis is that a syntactic characteristic of Basque and the romance languages is extrapolated to their morphology, so that in Basque derivations the core of the structure is on the right, while in the romance languages it is on the left. To make this easier to understand, remember that prefixes in romance languages may act in two ways: as modifiers of a core, located on the left (*refer/rehacer, desfer/deshacer, predir/predecir*) or as the core, coming first with a complement on their right (*eslomar-se/deslomarse, desfullar/deshojar*). In the former case the prefix provides specificity for the core (the derivative *predecir* is a more specific version of the core *decir*, but to say before is, after all, still to say). In the latter case, the core is made up of the prefix itself, and the core is the basis of the derivation, so that *prehistoria* is not a more specific version of the basic complement *historia* but something different altogether. It can be seen in two ways that Basque has only the first form. First of all, it has the prefix *des-*, which has both possibilities, as in the case of the romance languages. In the

derivative *desegin* it acts as a modifier of the basic core *egin* (the antonym of *do*), but when we seek an example of the prefix/core complement type (*deshojar*), *desostatu*, we find that it is not properly formed. Observe that the prefixes *ber-/bir* 're' and *ez-* 'in-/des-' also act in the same way.

As regards lexicographic conclusions, the first point which must be stressed in this paper is the difficulty found in forming words such as *desostatu*. Secondly, we must make it clear that the prefix-core/base-complement of the romance languages and English has a corresponding feature in Basque in base-complement/suffix-core. This is an important contribution to modern lexicography. Beyond formations of the *des<sub>1</sub> hoja<sub>2</sub> r ∅ hosto<sub>2</sub> gabe<sub>1</sub> tu* type we must bear in mind the option *hostoak<sub>2</sub> galdu/kendu<sub>1</sub>* but especially the forms *pozoin-du* (*en-venenar*), *bigun-du* (*re-blancederse*), *lerro-ka-tu* (*a-linear*), *irin-ez-ta-tu* (*en-harinar*), *lur-rera-tu* (*a-terrizar*), which should be standardised as the common correspondents of the prefixes *a-*, *des-*, *en-*, *es-*, *in-* and *re-* so that more and better resources are made available.